

## KARMELE AGIRREGABIRIA andrea

Gasteizen, 2000ko uztailearen 19an

Jesus Mari Makatzaga

Agur, Agirregabiria andrea:

Zure gutun bat jaso dugu baldintzazko perpaus batzuei buruz galdetuz. Hona hemen zure galderei Gramatika batzordeak nola erantzun dien:

“Baldintzaren aditza lehenaldia bada, ondorioak ere lehenaldia behar du?”  
Ez.

“Beti?” Ez.

“Ez dago beste aukerarik?” Bai, ondorioa etorkizunekoa ere izan daiteke.

“Honako esaldi hauetatik zein da zuzena (zuzenik bada)?” Adibide sail bakoitzean lehendabizikoa bakarrik da ontzat ematekoa. Honako hauek, beraz:

*Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginateke orain.*

*Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oportretan ez zenuke hemen geratu beharko.*

Gainontzekoak ez ditugu ontzat jotzen, ondorioko aditza iragana baita (*biziko ginatekeen, biziko ginen, ez zenukeen geratu beharko, ez zenuen geratu beharko*) eta adberbioa edo adberbio sintagma orainaldikoa (*orain*) edo etorkizunekoa (*datozen oportretan*). Beraz, ez dira ongi ezkontzen aditzaren denbora eta aditzaren ekintza gertatzen den unea. Horrenbestez, ondokoak ez lirateke onak:

*Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginatekeen orain.*

*Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginen orain.*

*Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oportretan ez zenukeen hemen geratu beharko.*

*Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oportretan ez zenuen hemen geratu beharko.*

Zure galderei erantzun egokian eman diogulakoan, hurrengo batera arte.